

Airean beldurra



INMA ERREA CLEIX
IDAZLEA EDO

Kezkaturik, azalak hartu ezinik. Izu-antz. Azkenotan, jende anitz dabil horrela Mundu osoan, ohi gisan. Gure mundu garatuan, ohi baino gehiago.

Pandemia eta gerra dira beldur-iturri nagusiak. Apokalipsiaren lau zaldunetako bi. Hirugarrena, gosea, ekonomian irudikaturik, eta laugarrena, heriotza, inguruan beti.

Nahiz eta pandemia lausotuago ageri orain, apalagoa edo, eta gerra gureganetik hain hurbil ere ez egon, inguruko jende askori igarri diot kezka. Bat-batean zerbait izugarri eta gaindiezina iritsi behar zaigun beldurra.

Helduak garenez, ez dugu esaten, baina behin gaia aipatuta aitortzak datoz ahapeka. Eta aitortzekin batera, lasaitua ere batzuetan, adierazezina partekatzeak berekin dakarren sosegu berezi hori.

Nire burua beldurtitzat izan dut beti. Inoiz ez dut jakin jatorriz edo ingurubarrekin eraginda –badakit, aldiz, emakume izateak neure beldurren zerrenda handiagotu zuela–.

Halarik ere, orain, harrituta nago nire buruarekin: inguruko askok hitz-erdika adierazten dituzten beldur horiek ez naute ikaratzen.

Ikusten dut
izu-ikarak
hedabideek
elikatzen dituztela,
herritarrok joera
baitugu burutik
burura sinesteko
ikusten eta
entzuten ditugun
albiste-itxura oro

Oroitzen naiz Txernobylgo istripu nuklearraz, eta gogoan dut berriek iritsi ahala sortzen zidaten antsietate menderakaitz eta aitorrezina. Eta atzerago eginik, oroitzen naiz gerraren beldurrak jo ninduen lehen aldiarekin ere: bospasei urte nituen, eta orduko

komunikabideak gerra-oihartzunak hasi ziren ekartzen Ekialde Ertainetik –geroago jakin nuen Sei Eguneko Gerra zela–. Herriko haurrok gerretara jolasten hasiak ginen, goseak geunden gerra-kontuez eta lortu genuen izeba zahar batek kontatzea haurtzaroko istorio bat Munduko Lehen Gerrari lotua: argi-bola erraldoi bat ikusi omen zuten Pirinioez beste aldean, Iparraldean. Egia edo fantasia, dardara batean paratu gintuen kontakizun hark.

Halako oroipenak gogoan, serio hartzen ditut jende askok pairatzen dituen beldur-izuak –ni orain hain izuturik sentitu gabe ere–. Eta ikusten dut izu-ikarak hedabideek elikatzen dituztela, herritarrok joera baitugu burutik burura sinesteko ikusten eta entzuten ditugun albiste-itxura oro. Askori eta askori, informazioa inongo galbaherik gabe bereganatuta, sufrimendu handia eragiten die.

Alferrikako sufrikarioa, ezer gertatzen ez den bitartean, zerbait izugarria gertatzera (botoi nuklearra dabil jende askoren buruetan) ezer leunduko ez lukeena. Galdera bat darabilt: nork ateratzen dio onura jendea beldur bizi ziteari? ●



**Kazetaritza independentea
izan dadin, jendearen
babesa beharrezkoa da.**

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45

